



# KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria  
2025eko iraila - 263 zkia.




Edurne Burgaña Egurbide “Kalapetero”

## Gerrak baldintzatutako bizitza

ADIMEN ARTIFIZIALA HEZKUNTZAN

GARAI BATEKO BEREIZKETA: BENETAKO POBREAK VS. ALFERRAK

EUSKARAREN AURKAKO ERASOEN AURKA • SATURRARAN: HISTORIA ETA MEMORIA



«AGERRETXO»  
**Ansorregi**  
*onetakoak*

Eskerrik asko, Auro,  
zapata-dendan  
herriari emandako  
zerbitzuagatik



# SASOIKO ZAINDU



**zentroa**

Tranpakale 7 behea  
605735911

**K-Stretch**

**eta**

**HIIT**

**saioak**



Bada zuregatik zerbairegiteko ordua.

luzaketak-posturologia eta indarra-erresistentzia lantzeko saioak **Oihana Kortazarren** eskutik

## Osasuna

### COVID-19 KORONABIRUSA

#### OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak.....	943 46 11 11
Anbulatorioa.....	943 60 43 00
DYA zentrala.....	943 46 46 22
Mendaroko ospitala .....	943 03 28 00
Alzheimer elkarteak .....	943 29 71 18

### Botikak

Lasuen-Elezgarai .....	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz .....	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi .....	669 26 22 01
Hiart Burgoa .....	667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) .....	943 20 19 12

## Udala, zerbitzuak...

Udaletxea .....	943 60 32 44
Udaltzaingoa .....	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea .....	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa .....	943 60 42 47
Anai Arte taberna .....	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza .....	943 60 38 71
Eguneko Zentroa .....	943 60 38 71
Turismo Bulegoa .....	943 60 33 78
Bake epaitegia .....	943 60 70 49
Kiroldegia .....	943 60 31 75
Liburutegia .....	943 60 41 82
Miruaitez pilotalekua .....	943 60 41 91
Ur Kontsorzioa .....	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak .....	943 70 07 99
Posta zerbitzua .....	943 60 30 44

## Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola .....	943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea .....	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua .....	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua .....	943 60 71 37
Udal Euskaltegia .....	943 60 30 94
Udal Musika Eskola .....	943 60 37 80
Haurreskola publikoa .....	943 60 41 19

## Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia .....	638 67 23 83
Lurraldebus .....	900 30 03 40
Pesa Autobusak .....	900 12 14 00
BizkaiBus .....	902 22 22 65
EuskoTren .....	944 333 333
Loiuko Aireportua .....	905 50 50 05

## Bestelakoak

Parrokia .....	943 60 39 87
----------------	--------------

## BEHARREZKO GELTOKIA, MUTRIKU

‘Tren bat’ abestian Gorka Urbizu aurkitzen den bezala nabil, isiltasunaren bagoian –beno, tren honetan ez dago aukera hori– idazten, hara eta honako zurrumbiloan lur hartu nahian, «ikusmenak itsututa» eta «denborarik gabe». Bizitzak bagaramatza egin, egin eta egin horretara; pentsatu, pentsatu eta pentsatu, ondoren sortzeko –ideiak, kudeaketa magikoa...–. Donostiara joan, hurrengo goizean Gasteizera, atsaldetan Bilbora joateko... Badira bidaia exotiko batzuk ere, Paris edo Bartzelona kasu.

Baina bidaia gogokoena beti da gurasoen etxerako helmuga duena. Izan bi ordurako, afaltzeko edo lo egin eta hurrengo goizean goiz berriror abiatzeko. Norbere etxea beti izango da konfort gunea, espazio segurua, besarkaden nasa, lasaitasunaren eserleku eta indarrez hauspotzeko tailerra. Norbere herriak ere, oro har, xarmarik badauka horretan datza. Hankak lurrean jarri eta eroso sentiarazteko gaitasuna dauka.

Isiltasunaren –edo ez hain isiltasunaren– bagoi honetan nagoela, etxearen eta Mutrikuren nostalgia barnean gordeta, hipokritatzat hartu dut neure burua. Lehen munduko “arazo” edo “morriña” honekin hunkitzeaz nagoen honetan, milioika herritar daudelako beraien etxea uztera behartuak izan direnak. Neronek hain eskura daukadan Mutriku horretara itzulera ezinezkoa daukatena, inoiz ez direnak beraien etxean bezala sentiaraziko abiatu duten bizitza/herri berrian, norbera sortu den herria bezalakorik ez dagoelako.

Arrazismoa eta xenofobia –aporofobiak indartuta– hainbeste ari duen garai honetan, non diskurtsoak hainbeste polarizatu diren, migratzaileak jomugan daude han eta hemen. ‘Ni ez naiz arrazista baina...’ argudioa indarra hartzen ari da bizikidetzaren izenean, migratzaileek jada daukaten eskubide urriak are gehiago apaldu nahian, nagusikeriaz, zintzoa eta gaiztoaren arteko marra pertsonaren jatorrian ezarrita.

Enpatian galdu du gizarteak eta bakoitzaren patua norberaren ipurdia salbatzea da, komunitatean bizi garela ahantzita; komunitate hori, hain justu, moldagarria izan daitekeenean, batzuk joan eta beste batzuk batzen direlarik. Elkarren ezagutzak eta bizikidetzaren aberatasuna eskura daukagula, diskurtso populistak ari dira bizitzaren joko zelaian nagusitzen.

Norberaren herria utzi eta beste zerbaiten bila joateak zein gogorra izan behar duen gogoetatzeko deia bultzatu nahiko nuke, ‘ni ez naiz arrazista baina...’ esaldia botatzera joan aurretik, behintzat. Enpatia landu, begiratu zein gertu daukagun besarkaden nasak, lasaitasunaren eserlekuak eta indarrez hauspotzen dizkiguten tailerrak. Etxea, sorterrria komunitatea. Eta ea oraindik ere ausartzen garen nagusikeria horrekin, burua makurtu gabe, egia absolutuaren jabeak izango bagina bezala, lotsa apur bat ere sentitu gabe bestea baztertzen, argudio arrazistak baliozkotzen, arrazistak izaten.

Argitaratzailea

**Karenka Komunikazio Elkarteak**  
Barrenkale 12, behea  
20830 Mutriku

Tel. 635 748 393

e-posta [aldizkaria@kalaputxi.eus](mailto:aldizkaria@kalaputxi.eus)

Webgunea: [www.kalaputxi.eus](http://www.kalaputxi.eus)

Bloga [www.kalaputxi.blogspot.com](http://www.kalaputxi.blogspot.com)

Laguntzailea **Mutrikuko Udala**

Kolaboratzaileak

**Josu Larrañaga, Eneko Erraiz,**  
**Inhar Mutiozabal**

Tirada **2.200 ale**

Lege Gordailua **SS-787/01**

ISSN **1579-4792**

Inprimategia **EUSKALINPRI**

Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak  
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza  
jasotzen du:



**Mutrikuko Udala**



astelehenetik ostiralera							
<b>DB03</b>	<b>LEKEITIO - DONOSTIA</b>						
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00		
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25		
<b>Mutriku</b>	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30		
Donostia	7:55	11:30	14:30	19:30	---	Unibertsitatetik	
<b>DB03</b>	<b>DONOSTIA - LEKEITIO</b>						
Donostia	8:00	11:00	14:30	18:00	20:30	Unibertsitatetik	
<b>Mutriku</b>	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20		
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05		
<b>DB04</b>	<b>ONDARROA - MALLABIA</b>						
<b>Mutriku</b>	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45	
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55	
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15	
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	
OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: 23:25; 01:15.							
<b>DB04</b>	<b>MALLABIA - ONDARROA</b>						
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05	
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15	
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30	
<b>Mutriku</b>	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40	
OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: 00:25. (Eibarren -25 min.)							
<b>DB05</b>	<b>MUTRIKU - ZUMAIA</b>						
<b>Mutriku</b>	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40	
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	
<b>DB05</b>	<b>ZUMAIA - MUTRIKU</b>						
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10		
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40		
<b>Mutriku</b>	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
<b>DB06</b>	<b>ONDARROA - SORALUZE</b>						
<b>Mutriku</b>	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40
<b>DB06</b>	<b>SORALUZE - ONDARROA</b>						
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
<b>Mutriku</b>	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak							
<b>DB03</b>	<b>LEKEITIO - DONOSTIA</b>						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
<b>Mutriku</b>	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
<b>DB03</b>	<b>DONOSTIA - LEKEITIO</b>						
Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00		
<b>Mutriku</b>	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
<b>DB04</b>	<b>ONDARROA - MALLABIA</b>						
<b>Mutriku</b>	7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	
LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: 23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55.							
<b>DB04</b>	<b>MALLABIA - ONDARROA</b>						
Mallabia	6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
<b>Mutriku</b>	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00
LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: 01:10; 03:10; 05:10; 06:10. (Eibarren -25 min.)							
<b>DB05</b>	<b>MUTRIKU - ZUMAIA</b>						
<b>Mutriku</b>	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
<b>DB05</b>	<b>ZUMAIA - MUTRIKU</b>						
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
<b>Mutriku</b>	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25
<b>DB06</b>	<b>ONDARROA - SORALUZE</b>						
<b>Mutriku</b>	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
<b>DB06</b>	<b>SORALUZE - ONDARROA</b>						
Soraluze	8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
<b>Mutriku</b>	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
<b>BILBOTIK</b>		7:00	20:00	<b>DonostiaTIK</b>	5:50	7:50	20:50
<b>Eibar</b>	6:14	7:14	21:14	<b>Errekalde</b>	5:59	7:59	20:59
<b>Elgoibar</b>	6:24	7:24	21:24	<b>Orio</b>	6:14	8:14	21:14
<b>Mendaro</b>	6:33	7:33	21:33	<b>Zarautz</b>	6:20	8:20	21:20
<b>DEBA</b>	6:44	7:44	21:44	<b>Zumaia</b>	6:29	8:29	21:29
<b>Zumaia</b>	7:00	8:00	22:00	<b>DEBA</b>	6:43	8:43	21:43
<b>Zarautz</b>	7:08	8:08	22:08	<b>Mendaro</b>	6:52	8:52	21:52
<b>Orio</b>	7:15	8:15	22:15	<b>Elgoibar</b>	7:01	9:01	22:01
<b>Errekalde</b>	7:29	8:29	22:29	<b>Eibar</b>	7:11	9:11	22:11
<b>Donostia</b>	7:38	8:38	22:38	<b>Bilbo</b>	8:20	10:20	23:20

ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40

## IKASTURTE BERRIA HASITA

Irailarekin batera, Galbaixo jaixak pasa ondoren, ikasturte berri bete-beteaz sartzeko gara Mutriku. Udakoak atzean utzita, hurrengo hamaika hilabeteetarako asmoak abiatzen ditugu.

Kalaputxin ere 2026ko uztaila bitarteko asmoak martxan jarri ditugu herritar guztiei euskarazko irakurza eskuratzeko, orain dela hogeitalau urte hasitako bidetik.

Euskaraz irakurtzeko aukera emateaz gain, Kalaputxik mutrikuarrei zerbitzua eman nahi die, eta erabilgarria izan

gainerako herritarrei zerbait kontatu, eskaini, erakutsi eta par tekatu nahi dutenerako.

Hortaz, irakurle, hemen dituzu Kalaputxiren orriak gainerako herritarrei eskaini nahi diezuna eskaintzeko: zeure iritzia, negoziaren iragarkia, etxeko zein lagunen zorian-agurra, elkartearen komunikazioak...

Mutrikuarren etxe guztietara iritsi nahi duenak, hilean behin horretarako aukera izango du aldizkariaren bitartez.

[aldizkaria@kalaputxi.eus](mailto:aldizkaria@kalaputxi.eus) eta [wathappa 635748393](https://www.watsapp.com/635748393).

**Kalaputxi**

*Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu.*

Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz [aldizkaria@kalaputxi.eus](mailto:aldizkaria@kalaputxi.eus) helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.

*Ustekabean erori zaigu  
espero ez gendun harria  
hutsune handi batean utziz  
lagunak eta herria.  
Azkenerarte azaldu zendun  
bizitzeko egarría,  
ta nola ez,  
irribarrea zenuen zoragarria.  
Betirako gelditu zaigu  
bihotz barruan jarria  
joan zarenetik zeruan piztu  
diguzun izar berria.*

Gero arte, Iratx  
Faltan botatzen zaitxugu



## Peio Arreitunandia Quinteiro

Laura eta Uxue holakoetan  
nola adierazi hitzak?  
Hain une zailak bizi izaten  
behartzen gaitu bizitzak  
Goizeko Izarra ikastolako  
kide denok eginik bat  
gure maitasun, animo eta  
indar guztia zuentzat.

Ikastolatik besarkada bat  
Uxue eta Laurari  
Ta mila musu etsi ez zuen  
senarrari ta aitari  
horren indartsu itsatsi zinen  
bitzitzaren gurgilari  
beti izango zaitugu Peio  
eredu eta gidari.

Saturran Guraso Elkartea



Goizeko Izarra Ikastola



# Adimen Artifiziala Hezkuntzan: aukeraz betetako bide arriskutsua

Adimen artifiziala (AA) ez da jada etorkizuneko teknologia; gure orainaldiko eguneroko errealitate bihurtu da dagoeneko. Gure egunerokoa eraldatzen ari dira modu lasai baina sakonean. Lan mundutik osasungintzara, komunikabideetatik harreman pertsonaletara, adimen artifizialaren presentzia gero eta agerikoagoa eta eragin handiagoa da.



Askok iraultza teknologiko honen aukera paregabeak azpimarratzen dituzte (efizientzia, abiadura, eta soluzio berriak), baina gero eta gehiago dira alde txarrez ere ohartarazten gaituzten ahotsak, esaterako, pribatutasunaren galeraz, kontrol sozialaz, enpleguaren automatizazioaz, edota gizatasunaren desitxuraz. Labur esanda, adimen artifizialak gero eta presentzia handiagoa dauka gure bizitzaren arlo guztietan, eta hezkuntza ez da salbuespen. Hainbat ikastetxetan, irakasle eta ikasleek dagoeneko erabiltzen dituzte ChatGPT gisako hizkuntza ereduak; lanak prestatzeko, zalantzak argitzeko edota testuak zuzentzeko. Hala ere, tresna horiek eskaintzen dituzten aukera teknologikoak liluragarriak diren arren, ezin dugu ahaztu arriskuak eta erronka pedagogikoak ere berekin dakartzatela. Euskal Herriko Unibertsitateak eta beste hezkuntza-eragile batzuek ohartarazi dute: tresna horien erabilerak hausnarketa sakona eskatzen du.

Batetik, adimen artifizialak ikaskuntza prozesua pertsonalizatzeko eta errazteko aukera ematen du. Edukiak egokitu daitezke ikasle bakoitzaren erritmo eta beharretara, testuak automatikoki laburtu edo itzuli daitezke, eta ebaluazio prozesuak azkartu. Gainera, irakasleentzat baliabide interesgarri bilaka daitezke testuak sortzeko, programazio didaktikoak egituratzeko edo proiektuen ideiak eratzeko. Aurrerapen horiek, ondo erabilita, ikusgarritasun eta inklusio handiagoa eskaintzen dute, batez ere aniztasunaren aurrean erantzun pedagogiko hobek emateko.

Bestetik, ordea, hizkuntza-ereduek dakartzaten arrisku tekniko eta etikoak kontuan hartu behar dira. Adibidez, sistemek duten ingelesezko datuen gehiegizko presentzia dela eta, euskarazko edukien kalitatea eta erabilgarritasuna murriztagoa da. Horrek euskara bezalako hizkuntza gutxituentzat arriskua dakar: Erabilera txikiagoa, eta ondorioz, bazterketa digitala. Gainera, ikasleen autonomia kognitiboa kolokan jar daiteke tresna hauek gehiegi erabiltzen badira; pentsamendu kritikoa, sormena edo ikaskuntza sakona ordezkaturata gera baitaitezke: "Si seguimos así durante 20 años más seguramente no sobreviremos, es algo existencial" (The Social Dilemma, 2020).

Beste arrisku batzuk ere azpimarratzekoak dira: Plagioa, ikasleen denboraren kudeaketa desegokia, edota informazio faltsuak egia balira bezala hartzeko arriskua, The Social Dilemma (2020) dokumentalean aipatzen den bezala, gaur egungo egia

Adimen artifizialak gero eta presentzia handiagoa dauka gure artean, baita hezkuntzan ere

MUTRIKUKO TANATORIOA



**Albia**  
EHORZKETA ZERBITZUAK

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78  
943 20 10 95 (24 ordu)

**ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U**

**ERAIKETAK**


Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938  
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

manipulatuta dago. Eta ez da ahaztu behar datuen tratamenduaren inguruko pribatutasun arazoak ere badirela; Izan ere, tresna horiek erabiltzean ikasleen datuak edo edukien jabetza galdu daitezke, kontrolik gabe. Horrez gain, Baumanek (2009) esaten duen bezala, itxarotea hitz txarra bihurtu den garaian bizi gara. Apurka-apurka, ahal izan dugun neurrian, zerbaiten zain egon beharra ezabatu dugu, eta gaurkotasan goreneko azken adjektiboa 'bat-batekoa' da. Adimen artifizialak egoera hau areagotu egin du dena segunduan dugulako. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi irakasleen prestakuntza. Gero eta argiago dago: Adimen artifiziala hezkuntzan sartzea ez da teknologia hutsa integratzea, baizik eta jarrera, ezagutza eta etika berriak eskatzen dituen aldaketa sakonagoa. Irakasleak formatzeko beharra larria da, eta horrekin batera, ikasgelan giza harremanak eta elkarlana lehenesten dituen ikuspegi pedagogikoa sendotzea.

Adimen Artifiziala tresna indartsua da, baina horrek ez du esan nahi neutrala edo arriskurik gabea denik. Hezkuntzan aplikatzeak onurak eta aurrerapauso handiak ekar ditzake, betiere erabilera kritiko, kontziente eta etiko baten bidez bideratzen bada. Euskara eta bestelako hizkuntza gutxituentzat, erronka bikoitza da: Parte hartzea bermatzea, baina baita kalitatea eta erabilgarritasuna zaintzea ere.

Ez da galdera soil bat «erabili ala ez erabili». Gakoa da nola, zertarako eta norentzat erabiltzen den. Eta horretan, irakasle, familia eta hezkuntza komunitate osoak badugu zer esanik.



Momentua da hau aldatzeko, eta lehen baino lehen egin behar da; izan ere, The Social Dilemma (2020) dokumentalean aipatzen den bezala, arazoa (kasu honetan adimen artifiziala eta teknologia orokorrean) zenbat eta handiagoa izan, orduan eta zailagoa da norbaitek aldatzea. Beraz, eman dezagun behingoz pausoa!

**Larraitz Soto Arrizabalaga**



## APALLU ITURGINTZA

Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61  
San Agustin,3 - Mutriku

apallu@apallu.es

www.apallu.es

ospakizunak, bazkariak, bataioak, eguneko menua...

## SAN JUAN JATETXEA

Mutriku-Deba errepidea, Laranga auzoa  
Tel.: 943603167 (jatetxekoa)

## SAMIELAKO ZOZKETA SOLIDARIOA

Beste urte batez, mutrikuarren eskuzabaltasunak Samielako zozketa solidarioa arrakastatsua izatea egin du. Aurten zozketan bildutako guztia premia bereziak dituen gure ikasle baten mugikortasuna hobetzen laguntzeko izan da, bizi-kalitate hobea eta independentzia handiagoa eskainiz. Izan ere, bere irisgarritasuna bermatzeko gailu bat jarriko da eta saldu den txartel bakoitza berarentzat eskuragarriagoa izango den etorkizun baterako urrats bat izan da.


Horregatik, batetik, ikastetxeko ikasle, guraso eta familien inplikazioa eskertu nahi dugu txartelak saltzen egin duten ahalegina sekulakoa izan baita; eta bestetik, mutrikuko herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu, aurreko urteetako zozketa solidarioetan bezela, aurten ere ez dutelako hutsik egin: zuen konpromiso eta eskuzabaltasuna sakonak bezain miresgarriak dira.

Beraz, guzti-guztiori, eskerrik asko bihotz-bihotzez.



## MIJOA ERREKA GARBITU DA

Mijoa errekaen ibilguan ur zikinek sortzen dute benetako arazoa, ingurumenarekiko nahiz bizilagunekiko, baina ibilguan hasita zegoen begetazioa ere arazo iturri gertatzen zen euriteetan. Izan ere, urak menditik ekarritako adarrak eta zakarrak kontrolrik gabe hasitako begetazioan kateatu, eta errekek gainzka egiteko arriskua handitzen zuen. Poligonora sartzeko zubiaren azpia ere harriz, lurrez eta hondarrez itxi egiten zen eta, Aldabe erreka urak Mijoa erreka batzean, presa natural modukoa sortzen zen. Aurten, Udalak Ur Agentziari egindako eskari arrazoituari esker, errekaen garbiketa burutu da ibilguaren zati eder batean. Ea laster datorren Mijoa bailarako saneamenduaren gauzapena, bailarari ez ezik, Saturraran inguruari ere onura egingo diona.



## BERTAN ZOZKETAREN IRABAZLEAK

Udan egin zuen BERTAN Mutrikuko Merkatarien Elkarateak sasoiko erosketak saritzeko zozketa, eta hona emaitzak: 250 euroko saria jaso zuten Nurudeen Jengek eta Euge Manzidorrek; eta 500 euroko saria jaso zuten Nekane Elezgaraiak eta Begoña Usatorrek. Erosketak herrian bertan egitea eskertzeko den zozketan parte hartu duten erosle eta bezero guztiei eskerrak eman nahi dizkie Elkarateak.



## TXUKUNTASUNA GARESTI

Urte batzuk dira Mutriku-Ondarbeltz pasealekua egin berriak komun publikoak instalatu zenetik. Harrez gero, egunero bertatik pasatzen diren ehunka ibiltariek estuasunean badute nora jo. Instalazio dotorea, garbi mantentzen saiatzen direna, erabiltzaileak eta Udala. Ibiltari batek bidali digun argazkiarekin bidali digun mezua: "Penagarria da batzuek guztionak diren gauzak zikintzeko duten afizioa. Komunean bezala, herriko toki askotan ikusi dira udan horrelakoak".

## SIMULAKRO OROKORRA KOBETA LEIZEAN

Euskal Espeleologia Elkargoak (EEL) antolatuta urteko simulakro orokorra Mutrikun burutuko dute urriko bigarren asteburuan. Burumendi Espeleologia Taldetik adierazi digute antolaketa lanetan hasi direla-eta, salbamenduan aritzen diren hainbat profesionalak hartuko dutela parte. Horien artean, Euskal Espeleologia Laguntzako kideak, Ertzaintzaren zaintza eta erreskate unitateko kideak, suhiltzaileak eta osasunarloko espezialistak. Horrek guztiak, azpiegitura zurrun eta landua eskatzen du. Edozein arlotan prebentzioa garrantzitsua bada, are eta gehiago arriskuko jardueretan *“leize batera sartzen garen guztietan ziurtasunez jokatzeko dugu; ainguralekuak begiratu, sokaren osasuna, txapak, korapiloak, harri solteak... Ordea, gure esku ez daudenak ere baditugu, eta min hartzeko batzuetan ez da behar asko. Horrelako kasuren bat gertatuz gero, hau da, leizearen barrualdean lurrazaletik ehunka metrora gertatuz gero, Euskal Espeleologia Sokorrokoak ditugu zauritua ateratzeko”*. Izan ere, urtero burutzen dituzte erreskate simulakroak Burumendi taldekoek. Horretarako, taldekideek aipatu dute formakuntza bereziak jasotzen dituztela horrelako egoera batean parte hartu ahal izateko. Simulakroko partehartzaileen kopurua altua dela adierazi digute espeleologoek. Aginte postua herrigunean jartzeko asmoa dute, eta helburua zauritu bat Kobeta sistemako galeria handi batetik kanpora ateratzea izango da, *“ez dakigu barrunbearen morfologiak esku-oha ateratzea ahalbidetuko duen, baina burutu beharreko helburua izango da”*.



## BENJAMIN GOGOAN

Samikoilatarrek, aurten ere, presente izan zuten euren auzo-bazkarian orain hilabete batzuk isiltasunaren eremura alde egin dien Benjamin Pérez. Mahai gainean ezarri zuten bere argazkia bazkalosteko kantuek hasterako orduan. Soilik auzotar musikari eta musikazalearen gitarraren soinua falta izan zen ahotsak txukun-txukun tolesteko.



## PALESTINA ASKE

Urteetako zapalkuntza jasaten ari den herri palestindarra azken hilabeteetan modu gordinean pairatzen ari da Amerikako Estatu Batuek babestuta Israel burutzen ari den eraso krudel eta ankerra. Mundu zabalean gero eta gehiago dira horren aurrean oihukatzen dutenak: Genozidioa Stop. Palestina Aske! Mutrikuarrak ere bai.

## RAFA URANGA VALENTZIAN GARAILE

Irailaren 6an Valentziako Ricardo Tormo zirkuituan ospatutako lasterketetan Bigarren postu bat eta Garaipen Orokor bat ekarri ditu Rafak Mutriku aldera. Lasterketa berean Euskal Herriko txapelketa eta Ipar Eremukoa (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Aragoi) ere bereganatu ditu. Asteburu bikaina, beraz, pilotu mutrikuarrarentzat. Hurrengo lasterketa, urrian Lleidako «Castelloli» zirkuituan. Zorte on!




## ANAIARTEREN DANBORRADAK 25 URTE

Galbaixo bezperako danborradak 25 urte bete ditu. Aurreko astean danborradako 80 urtetik gorako parte hartzaile direnei eta izandakoei omena egin zitzaien ekitaldi xumean. Danborrada egunean, ibilaldian izandako zuzendariak jaso zuten gorazarrea: Inazio Odriozola «Pintxazo» —Arantza Flores emazteak jaso zuen—, Juanjo Lekunberri —Xapo—, Itziar Galdos, Juan Inazio Aranberri, Nikaxi Illaramendi, Ramon Saenz eta Itziar Egurbide «Txatia».



# PALESTINA

*asker*




## Mulholland Drive

Gizakixok mundu bat gera, eta mundu oso bat daukagu geure barruan. Zerua garbi dakagun bitxartian, geuk ere ez dakigu zelako betetasun maila arte aillatu ahal geran, horren arrazoia bizi degun arte. Baina, itxasoko urak hasarre baldin badoz, sortuko zakun zuluan sakoneria ere ez dakigu noraiñokua dan.

Film hontan pertsonaia asko ezagutuko ditxugu, ikuskera desberdinetatikan. Beuran jokatzeko eran sakonduko degu, bizi deuen inguru zitalan gora-beheran. Hala, pertsona batek bizi guztian euki doan bere nahixa zelako ametsgaizto illuna bihurtu leiken ikusiko degu.

Kontuz ibili bihar gera geure buruari zer eta zenbat eskatzen dixau kalkulatuzian. Gure esku ez dozen gauzak sartzen badia tartian, gure ondo-egotia baldintzatuta egongo da beti. Baiña, ze pasatzen da gure barruan sortzen dan nahi hori geuk ezin degunian kontrolatu? Beti geatuko zaku amesetan etxia...

«Silencio»



### FITXA TEKNIKOA

**Izenburua:** Mulholland Drive      **Urtea:** 2001

**Zuzendaria:** David Lynch

**Gidoia:** David Lynch

**Aktoreak:** Naomi Watts, Laura Elena Harring, Justin Theroux, Robert Forster

**Iraupena:** 2 h 27 min.

## Cul-de-Sac

Nerea Arrien



Nerea Arrien idazle lekeitiarraren *Cul-de-sac* eleberriak ama-alaba batzuen arteko harreman korapilatsua du ardatz, nekazaletxe isolatu batean girotua. Maria eta Élodie pertsonaien arteko elkarbizitzak tentsio emozional handia du; bien arteko komunikazio ezak, gorroto uneak eta samurtasun keinuak tartekatzen dira kontakizunean zehar.

Istorioaren kokagunea den espazioa edertasunez beteta egon arren (itsaso bistan duen mendiko etxea, kolore zuri eta eguzkiaren argitasunarekin), pertsonaien barne-munduak utzitasuna islatzen du.

“Cul-de-sac” kontzeptua metafora gisa erabiltzen du idazleak: bide amaiera, ihesbiderik gabeko egoera, bai espazio

fisikoan, bai emozioetan.

Arrienen estiloak barne-munduen ña-bardurak aztertzen ditu: menopausiaren atarian dagoen ama eta nerabezaroran murgildutako alaba, biak norbere lekua bilatzen. Tartean, bigarren mailako pertsonaiak agertzen dira, Mateo eta Mark, baina ama-alaben arteko harremanari eusten dio eleberriak, elkarrengandik urrun egon nahi duten arren bata bestea gabe ezin duten bi gorputz.

*Cul-de-sac* eleberria hunkigarria da, ez dramatiko; intimoa, baina ez itogarria. Gurasotasunaz, identitateaz eta iraganetik askatzeko zailtasunaz gogoeta eginarazten duen kontakizun sakona da.

Edurne Burgaña Egurbide «Kalapetero»

# Gerrak baldintzatutako bizitza

“Tokatu zaio bizitza” espresioa erabiltzen dugu askotan norbaiti bizitza zaila izan zaiola adierazteko, eta horietakoa dugu Edurne. Hala ere, baikorra izan da eta da, lana gogor egitea tokatu bazaio ere. Hilabete gutxi barru 92 urte beteko ditu, eta pozik eta umoretsu aurkitu dugu Burdeos inguruan bizi duen semearen alboan, hilero egiten dion hileko bisita disfrutatzen.

## Zer konta dezakezu Mutrikun bizi izandako haurtzaroz?

Oso gogorapen gutxi ditut Mutrikun igarotako denboraz. 1934ko urtarrilaren 9an jaio nintzen, eta laster sortu zen Espainiako gerra zibila. Aitak, Luis Miguel Burgaña Belaustegi, alde egin zuen etxetik eta haren falta sumatzen nuen etxean, baina, nire adinarekin, ez nintzen gai inguruan zer gertatzen zen jakiteko. Gerora jakin izan nuen, Pedro Manuel Egañak egindako «Nazareno» arrantza-ontzian alde egin zutela Mutrikutik eta Bilbon Euzkadiko Gobernuaren eskura utzi zutela, eta baita, publikatuta ere badago aita eta osaben argazkiekin, *Euzkadiko Gudontzidian* parte hartu zuela bere anaiekin batera. Joxe Mari zaharrena —merkantzia-ontzi kapitaina— Portugaleteko ordezkaria izan zen. Kargu hartatik antolatu eta zuzendu zituen mina miaketak eta haien ezabatzea, minaketari-ontzi eta txalupa laguntzaileekin, arraste-arrantzan erabiltzen dituztenen antzeko arraste-sareak erabiliz. Ekintza horietan jardun zuten aitak, Zesareo, Ignazio eta Hilario anaiek, Bilbo erori aurretik Iparraldera alde egin zutenera arte.

Frankistak herrian sartu eta denbora batera —frentea Ondarroan kokatuta—, beste herriko zenbait emakumerekin batera, Bizkairako bidea hartu beharrean izan ginen ama, Ramonita Egurbide Basurko, eta biok, hiru urte nituelarik. Jontxu, anaia, oraindik txikia, tia Pantxika Basurkorekin —amaren aldeko amonaren ahizpa— eta tio Benigno Egañarekin gelditu zen Mutrikun.

Lortu genuen aitarekin Bilbon biltzea, eta, hiria setiatuta zegoela,



Burgaña-Egurbide sendia, (Jontxu falta)



Edurne, Joxe Mari senarrarekin

itsasontzi baten, oso zaharra nire gogorapenetan, Iparraldera alde egitea lortu genuen, eta Donibane Lohizunen egon ginen denbora batez, laguntza eman zigun familia baten etxean.

Gerra bukatzean, Zesareok eta Inaziok Mutrikura bueltatzeko aukera izan zuten, eta hemen egin zuten bizitza. Joxe Mari eta Hilario Venezuelara erbestera ziren eta bertan bizi —historikoa izan zen egurrezko bi ontzi 50 zaldiko diesel motordunekin hilabete baten 16 gizonen egin zuten Baiona-Venezuela zeharkaldia, haietako baten Joxe Mari buru zela—. Nire aita bakarrik gelditu zen Iparraldean, ez zen inoiz Mutrikura etorri. 1950eko abenduan lanean zebilen arrantza-ontzia hondoratu eta bizitza galdu zuen.

## Nola duzu gogoan Iparraldeko bizitza?

Ez ditut gauzak ondo gogoratzen, baina ez dut uste denbora luzean Donibanen egon ginenik; Landetako pinuak eta zerrategiak ditut nire oroitzapenetan, baita herri txiki bat ere. Gogoratzen naiz, baita ere, Inazio Zesareo, “Iñaki” anaia, Baionan jaio zela 1937ko abenduan. Hurrengo anaia, Juan Luis, Le Dart-Frantzian 1940ko azaroan, eta hurrengo bikiak, Fermin eta Albertina, Salles-Frantzian 1942ko urtarrilean.

Mugako bisitak ere badituzte akorduan. Mutrikutik etortzen zitzaizkigun familiakoak, eta umei muga igarotzen uzten ziguten,

**ARRIETA**  
AUTOZERBITZUA



**Aliprox**

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

**BERISTAIN**

PAPERDENDA ETA ESTANKOA

Barrenkale, z/g  
**943 60 35 44**

baina ez aitari eta amari. Horietako baten, Jontxuk zazpi bat urte zituela, mugako guardiak konturatu gabe pasa genuen Iparraldera. Halako baten, familia osoa elkarrekin.

Konturatuko zarete familia kontuak aipatu dizkizuedala, horiek baitziren garrantzizkoak une hartan, baina, jakina, hamazazpi urterekin Mutrikura bueltatu nintzenera arte beste bizitza bat izan nuen erbestean: frantsesa, eskola, lagunak..., hori dena Mutrikuren tamainako Landetako Le Barp herrian. Lagun min bat izan nuen, Jannine Ozkorta, mutrikuar jatorrizkoa, Nikasio eta Dionisiaren alaba. Baina gure poza ere bukatu zen arestian aipatutako aitaren heriotzarekin.

### Noiz eta zergatik bueltatu zinen Mutrikura?

Arestian aipatu izan dut gure amonaren ahizpa Pantxika oso hurbilekoa genuela, ez zuten familiarik eta, gure Jontxu, seme bat izan zen eurentzat gu Mutrikutik kanpo izan ginenean. Bada, alde batetik aita hila, eta bestetik, gure tia Pantxikak kudeatzen zuen taberna adina zela-eta goberna ezinik zebilela, amak erabaki zuen ni Mutrikura etortzea tiari laguntzera.

Zapatei kalean zegoen kokatua, gaur Aizabia Elkartea dagoen tokian, eta sarreran kartelik ez bazegoen ere, denek «Kalapetero» izenez ezagutzen zuten, tia Pantxikaren senarra Benignok lanbidez ontzia bidezkatzen edo kalapetatzen egiten zuelako lan.

Beraz, han nago ni, nire hamazazpi urterekin, Landetako pinu arteko girotik ihes egin, eta arrantzale giroan murgilduta.

### Kalapetero aipatzean jendarte berezia etortzen zaigu burura. Zer giro izaten zen bezeroen artean? Anekdotarik?

Orokorrean giro alai izaten zen. Euren jakiekin etortzen ziren etxetik bezeroak eta hiru txikiko botilatxoa mahaira eramanez ondoren, kartetan, kontu kontari, kantuan... Zenbat eta «sekantza» handiago, orduan eta umore gehiago.

Anekdotak asko, baina haiei begira asko gozaten nuen, eta sarritan gertatzen zen, «Txonanak» mahai botila ilara bat jarri eta haiek kolpatzen hasten zenean bi koilaratxorekin erritmo bat ezarri, gure aitona Felix igotzen zen mahai gainera eta dantzatzen hasten zen hankekin erritmoa jarraituz. Lion «Txaparro», «Xobiet»... bakoitza izaera ezberdinekin denak elkarri adarra jo eta nork gezur handiagoak bota. Gogoratzen naiz behin «Xobiet» umore ez oso onarekin sartu zela, eta laster hasi ziren adar-joleak: «Asko harrapatuko huan gaur...» batek; «Asko ez, baina handiak...» besteak, eta hala, adarra jotzeko makina martxan. Halako baten, «Xobiet» jaiki eta bere hizkera berezian: «Ba esango dizuet ba; alban joan eta pikada bat bera ere ez. Jada etxerako asmotan aparejoari ezin eutsitako tirada; hanka karel gainean jarri, jaso eta jaso, eta hara non agertzen den azalera kriston legatz burua. Ia nolakoa izango zen, ezinean nengoela, tak-tak somatu diat bizkarrean jotzen norbait, begiratu diat atzera..., eta legatzen buztana potinen karel azpitik pasata. Han zioz gure etxeko sukaldean tato ederrak eginda». Eta horrelako gezurrak...

### Baina izan zenuen bezero berezirik ere...

Bai. Bertan ezagutu nuen Joxe Mari Mendizabal «Goxerri» edo «Otxenta» nire senarra izango zena. Hala, 23 urterekin ezkondu nintzen 1957ko urriaren 10ean, baina, tamalez, ez zuen asko iraun gure zorientasunak. Lanbidez, urpekari edo buzoa zen, eta hurrengo urteko ekainaren 19an



Edurne Joxe Mari semearekin

galdu zuen bizia Zamorako urtegi baten lanean zebilela. Haurdun nengoan eta abuztuaren 30ean jaio zen umea: gure Joxe Mari.

### Hala ere tabernarekin jarraitu zenuen...

Esan behar, errentan genuela taberna, eta ugazabak senarra hil eta lasterrera eskaini zidala erosi nahi banuen. Senarraren heriotza istripuz gertatu zenez, kalte-ordaina jaso nuen eta diru hartatik erosi nuen taberna. Joxe Mari semea hamalau urterekin bidali nuen Frantziara familiartera; nik, bitartean, tia Pantxikarekin jarraitu nuen bizitzen, ez baitzuen ez erretirorik ez ezer. Urte batzuetara etorri zen Jontxu anaia gurekin bizitzera, eta Deban hasi zen lanean osabaren enpresan. Bidea bukatu behar, eta 1973an itxi nuen taberna, eta maileguan uzten nien eibartar batzuei. 1975ean erosi zidaten gaurko Aizabia Elkartekoek eta berriro bueltatu nintzen Frantziara. Hogeitaz urte igaro, eta 1995ean ezarri nintzen Mutrikun betirako.

### Eta badaramazu hogeita hamar urte portuan egunero aldaketak ikusten...

Aldaketak kanpoan eta geuregan. Ondo aurkitzen naiz, baina beti dago kexatzeko zerbait; buruaren azkartasuna belaunetan falta, eta hortxe, ahaleginak egiten mantentzeko eta igarotakoak gogoratzeko. Eduki ditut azken urte hauetan oso hurbileko lagunak, elkarrekin geureak pasatu ditugunak, onak eta ez hain onak, Martzelita Txurruka kasu. Aspaldi honetan ez dugu elkar ikusi, baina makina bat egun goxo pasatu dugu elkarrekin, eta ez hain goxoak, Mallorcakoa bezala, aldaka hautsi zuenekoak: ospitalea, bidaia futbol-ekipo batekin... Berrito solas aspertu bat egiteko gogoz.

Orain balkoia dut atletismo pista barandari helduta atzera eta aurrera, noizean behin kalera jaitsi eta aurreko eserlekuan jarri batarekin edo bestearekin mingaina dantzatzeko. Hilean behin etortzen zait Joxe Mari semea aste bat nirekin egotera, eta aingeru politik agertzen dira inguruan niri laguntzeko beti prest. Ez dut kezarik.

Camping   
**Galdona**  
 JATETXE ETA ERRETEGIA  
 Galdona Baserria  
 eguneko menua  
 daukagu  
 Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

**aparra**  
 JANTZI DENDA  
 Erdiko kale 29 · 20830 Mutriku · Tel.: 943604594

# Sasoï bateko bereizketa: benetako pobreak vs. alferrak

Mutrikuarrak, orain bezala lehen ere, eskuzabalak izan dira beti premia zutenekin. Elkartasuna erakusten zieten bolada txarra pasatzen ari zirenei, gaixotasunengatik lan egin ezinik zeudenei, alargunei, adineko behartsuei... Alferrak, ordea, ez zituzten berdin hartzen, alferkeria oso txarto ikusten zuten eta.

## Pobreak ala alferrak?

Dokumentazioak argi erakusten duenez, mutrikuarrek kezka handiz bizi zuten herrikideen estuasun ekonomikoa. Hori dela eta, Udalak, Elizak eta herritarrek dirua biltzen zuten beharrian handia zutenei laguntzeko. Baina, eskean ibiltzen ziren guztiak ez zituzten berdin ikusten, ez horixe! Bereizketa garbia egiten zuten: pobreak eta alferrak.

Pertsona jakin bat pobretzat hartzeko, baldintza batzuk bete behar zituen: lan egiteko ezintasuna (fisikoa nahiz bestelakoa), adin handikoa izatea, gaztetxoa eta umezurtza izatea...

Baldintza horietakoren bat betetzen ez zutenak, ordea, alfer lotsagabetzat jotzen zituzten. Pobreen aurrean, mutrikuarrek, samurtasuna eta karitatea agertzen zuten; alferren aurrean, berriz, mespretxua.

Probintziako ospitale eta egoitzetara, sarritan, osasun betean eta sasoiak zeuden pertsona alferrak joaten zirela-eta, hau adierazi zuen 1568. urtean Iruñeko Elizbarrutiko apezpikuak: *a los Hospitales de la provincia acuden muchos que pueden trabajar (...) no es justo que los bagamundos coman el pan de los pobres.*

XVIII. mendearan azken laurdenean hainbat dekretu eta errege-agindu eman ziren herrietan zeuden alferrak eta nagiak atxilotu eta armadara bideratzeko. Esate baterako: *Real Cédula sobre recolección de vagos (1787)*, *Real acuerdo sobre vagos, malhechores, buhoneros y pobres (1787)*, *carta de la Provincia sobre maleantes y vagabundos (1803)*.

Kosme Damian Txurruka ezagunak, Mutrikuko alkate zela, 1803ko uztaillean, Udalbatza osatzen zutenei esan zien ez zuela herriko alferren berri, *no conoce los verdaderos vagos que hay en su jurisdicción*. Datu hori jakin nahi zuen, herriko alferrak erregearen zerbitzura lan egitera bidaltzeko agindua zuelako. Udaleko ordezkariari eskatzen zien esan ziezaiotela nortzuk ziren herriko alferrak, *para que sus miembros le instruyan de todos los vagos que haya en la jurisdicción de esta villa, y se los delaten*. Agindu zuten herriko hiru parroketan (herrigunean, Astigarribian eta Azpilgoetan) Txurrukaren eskaeraren berri eman zezatela, herritarrek alferrak salatu zituzten, *qualesquiera personas que sepan o tengan noticia de alguno o algunos vagos, los delaten ante la justicia*.

Lantzean behin, dekretu eta aginduei jarraituz, aldian aldiko alkateak alferrak atxilotu eta kartzelara eramaten zituen, handik erregearen zerbitzura lan egitera bidaltzeko.

Armadan jarduteko baldintzak ezartzen zituzten aginduek: 17 eta 36 urte bitartekoak izatea, altuera jakin bat izatea (*cinco pies cumplidos*), osasunez ondo egotea...

## Alferrak kanpora!

Mutrikuko alkate ezberdinek alfertzat jotako bost lagunen berri emango dugu:

1757ko urtarrilaren 18an Antonio Migel Azillona alkateak eskribauaren aurrean aitortu zuen bezperan herriko Ospitale Nagusira joan zela, eta bertan gizon bat topatu zuela eskale-jantziekin, *en traje de mendigante*. Altura handirik ez zuen arren, erregearen zerbitzura joateko modukoa zela uste zuen Azillonak, *aunque no de mucha altura al parecer de bastante robustez y capaz para servir a Su Magestad en qualquiera de sus reales presidios o arsenales*.

Azaldu zuen ez zela komeni horrelako gizasemeak eskean ibiltzea, *por que de permitir vagar y mendigar a semejantes sujetos se siguen graves perjuicios al Reino*.

Eta herriko kartzelan sartu zuten. Atxilotuak azaldu zuen Joseph Antonio zuela izena, 29 urte zituela eta Cartagenakoa zela, *de Cartajena de Levante*, marinela lanbidez.

Bere ibileren berri eman zuen: errege-armadan ibilia zen, 1745ean Toloneko guduan (Frantzia) egon zen, 1756ko otsailan Kataluniako balandra batean ontziratu eta Vigoraino joan zen; han lehorreratu eta Santiagorako erromesaldia egin zuen, baina itsasontzira itzuli zenerako itsasora joanda zegoen. Handik Santoñara aldatu zen eta hiru hilabete eman zituen. Bi hilabete ziren Euskal Herrira etorrita zegoela, eta Portugalete, Bermeo, Lekeitio eta Mutrikun ibili zen, *pidiendo limosna como marinero*. Baionara joateko asmoa zuen, han kortsario lanetan hasteko asmotan.

Osasun-azterketa egin zioten eta, osasuntsu zegoenez eta Mutrikuko alkateak alfertzat jo zenez, Donostiara eraman zuten, handik zegokion tokira bidali zezaten, *se puede embiarle seguramente al presidio para donde esta destinado*.

1775eko martxoaren 29an hiru mutrikuar agertu ziren Mutrikuko alkatearen aurrera: Zeledonio Laskurain, Martin Urkaregi eta Ignazio Olabe. Eurekin gizon bat zekarten, eskale arrotz bat (*un hombre mozo mendigo forastero*), bezperan, Laranga auzoan, Arteaga baserriko Teresa Izagirre neskamea bortxatzen ahalegindu zela egotzita.

Lekukoen azalpenetatik dakigu arratsalde hartan 16 urteko Teresa neskamea arbiak batzen zegoela, Ametza iturritik gertuko sorobatean. Eskaleak besotik heldu eta lurrera bota zuen. Teresa txilioka hasi zen. Zeledonio nagusia herrigunetik zetorrela, oihuak entzun eta hurbildu egin zen gaztearengana. Neskameak gertatutakoa azaldu eta alproja haren bila hasi zen nagusia, eta, halako batean, sastraka baten atzean ezkutatuta zegoen eskaleak, labana eskuetan, eraso egin zion. Auzokoei deitu zien Zeledoniok eta, inguruko baserrikoekin batera, Arbeko txaraduan ibili zen eskale haren bila, harik eta ilundu zuen arte.

Biharamunean, goizean goiz, Zeledonio eta Martin Urkaregi auzokoa eskalearen bila hasi ziren, bai eta topatu ere, Urazemendi baserriko sorobatean, *con su lumbre encendido y fumando*. Herrira eramateko, laguntza eskatu zioten Bustinaga baserriko Ignazio Olaberi.



Itxura denez, eskale hura ez zen “etxerako modukoa”, bes-telako makurkeriak ere egin zituen eta. Arratsalde hartako hiruretan edo lauretan eskaleak limosna eskatu zien Illunbe etxekoei, eta bertako emakume batek leihotik erantzun zion Jaungoikoak lagundu diezaiola, *que Dios le ayudase*. Hori entzunda, gizonak hitz zatarrak esaten (*puerca cochina*) eta keinu lizunak egiten hasi ei zen, *haciendo con su cuerpo demostraciones muy sucias y deshonestas*.

Madalena Barrenetxeak, San Juan baserriko neskameak, azaldu zuen Teresarekin topo egin aurretik, euren etxera joan zela eskalea, eta gaua pasatzeko aterpea eskatu ziela, baina ezetz erantzun ziotela. Sua ere eskatu zien, eta ilinti bat eman zioten. Hura eskuetan hartuta, etxeari su emango ziola mehatxu egin zuen. Madarikazio batzuk ere bota ei zituen handik alde egin aurretik.

Martxoaren 31n deklarazioa hartu zioten eskaleari herriko kartzelan. Adierazi zuen Pascual de Cecilia izena zuela, eta Ateca herrikoa zela, *Reyno de Aragon, obispado de Teruel*. 23 urtekoa, nekazaria. Azaldu zuen hilabete eta erdi zela jaioteritik irten zela, eta ordutik limosna eske ibili zela, *a pedir una limosna por no tener en ella en que trabajar*.

Mijoko emakumeari esandako hitz zatarrak galdetuta, azaldu zuen, ezer baino lehen, Illunbeko andre batek errespetu faltaz esan ziola pikaro maltzurra zela, *que hera un picaro que podia trabajar*. Eta berak, batere erreparorik gabe, esan zuen neurriko erantzuna eman ziela bertako andreei, *las respondio que heran brujas y putas*.

Pascualek bihotzeko gaitza zuela ere aitortu zuen, baina Joseph Antonio Basterretxea medikuak, osasun-azterketa egingakoan, aitortu zuen osasuntsu zegoela eta plantak egiten zebilela, *heran fingidas y que no padecia enfermedad de epilepsia que bulgarmente llaman mal de corazón*.

Azkenean, Juan Bautista Andonaegi alkateak alfertzat jo zuen, *declaró al zitado Pasqual de Cecilia por vago y mal entretenido*, eta erregearen armategietan bost urte ematera zigortu zuen. Bost urteko zigorra hirura jaitsi zioten. Pablo Frantzisko Ariztondok txalupan eraman zuen Donostiara, handik Ferrol aldera eraman zezaten, *a los reales arsenales del Ferrol*.

1788ko abenduaren 19an Joakin Migel Uriarte alkateak Mutrikura limosna eskatzera joandako gizon bat ikusi eta

kartzelara eraman zuen. Manuel Bakedano zen, Nafarroako Beraskoain herrikoa, 41 urtekoa, ezkongabea, nekazaria. Baziren 24 urte bere jaioteritik irten zela, eta ordutik aurrera Araban, Errioxan eta Nafarroan nekazari lanetan ibili zen tarteka, eta lanik ez zuenean eskean ibiltzen zen, *en lo demas se ha mantenido pidiendo limosna por los pueblos*.

Azarotik Elgoibarko Pagaolatza baserrian zegoela aitortu zuen, eta Mutrikura bisigu pare bat erosteko asmoz joan zela.

Bakedano prest azaldu zen, bere borondatez, erregearen zerbitzura lan egitera joateko, sei urterako, *sea en la tropa o sea en la marina*.

Alkatea bera ere “vago” eta “mal entretenido”tzat jo zuen. Donostiara eraman zuten eta han ez zuten egokitzen jo, *hallado inepto por exceso de edad y defecto de talla*. Gainera, ohartu ziren desertorea zela, *desertor del Regimiento de Ynfanteria de Navarra*.

1789ko urtarrilaren 20an galiziar bat sartu zuen kartzelan Mutrikuko alkateak: Jacinto Fernandez, sortzez Tui herrikoa, baina bizilekua Ojacastron zuena, 42 urtekoa, nekazaria, ezkondua. Jacintok bazekien bere atxilotetaren arrazoia: *el haver andado pidiendo limosna*.

12 urte ziren Tui herritik irten zela Errioxara joateko lan egitera, eta bertan ezkondu zen. Azaroaren 2an Ojacastratik Gasteiza lekualdatu zen hango baratzetan lan egiteko. Azaldu zuen 1789ko Errege egunean Zarautza joan zela limoi-landareak erosteko asmoz, baina dirua amaitu zitzaioela-eta eskean hasi zela, eta handik Mutrikura joan zela, *ha venido a esta de Motrico tambien pidiendo limosna, a ver si podia encontrara algunos plantios de limones*.

Egoeraz ohartuta, esan zuen prest zegoela bere borondatez erregearen zerbitzura joateko 6 urterako, *quiere hir voluntariamente a servir a su magestad que Dios guarde en su real marina*.

Donostiara eraman zuten, eta urtarrilaren 22an handik idatzi zutenek adierazi zuten ez zela gai armadarako, *por ser inepto por defecto de estatura*. Horren ordezkari Urduluko gazteluan geldituko zen, *queda confinado en el Castillo de Santa Cruz de esta* (Motako gazteluan, hain zuen ere).

Julian Txurruka alkatea herriko eskribauaren aurrera agertu zen 1803ko ekainaren 5ean. Azaldu zion bezperan gizon gazte eta sendo bat ikusi zuela diru eske etxerik etxe, eta preso hartu zuela.

Egun hartan bertan hartu zioten deklarazioa eskaleari, Mutrikuko kartzelan. Aitortu zuen Juan Manuel Perez de Leonardo izena zuela eta Aia herrikoa zela, 39 urte zituela, Maria Joakina Zumarragarekin ezkondua zegoela eta tindatzaile zela, *de oficio tintorero*.

Biharamunean, herriko medikuak eta zirujauak osasun-azterketa egin zioten eta osasuntsu zegoela adierazi zuten. Pertsona egokia zela erregearen zerbitzura joateko, *sin que tenga indisposición alguna que le prive servir a Su Magestad, así por mar, como por tierra*.

Neurtu ere egin zuten Juan Manuel, *tiene la altura de dos varas menos un dedo*. Argazkien faltan, hona hemen bere ezau-garriak: *barba roja, pelo castaño, ojos azules, nariz afilada, color trigueño, cejas rojas, y un grosor mediano*.

Horiek ikusita, zigor-agindua eman zuen alkateak: eraman zezatela erregearen armadara sei urterako. Horretarako, bi soldaduren zaintzapean, Donostiara eraman zuten, Probin-tziako Komandante Nagusiarengana.

# EUSKARAREN AURKAKO ERASOEI HERRIAK ERANTZUN



Pasa den uztailen, Espainiako Auzitegi Gorenak Eusko Jaurlaritzaren 179/2019 Dekretuaren aurka ebatzi zuen, VOX alderdi politikoak jarritako helegitearen tesi gehienak bere eginez. Baliogabetutako dekretuak Eusko Legebiltzarrean kontsentsu zabalez onartu zen 2/2016 Udal Legea garatzen du. Ondorioz, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalei eta toki erakundeei herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera lehenestea ahalbidetzen dien hainbat artikulua baliogabetu dituzte, euskararen normalizazioa helburu duten beste neurri batzuekin batera.

Azken Inkesta Soziolinguistikoak argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai honek euskal erakundeen erabakimena eta euskal gizartearen borondatea ere jartzen ditu auzitan.

Epaiari erantzun bat ematearren, euskararen eta euskal erakundeen autogobernuaren aldeko erantzun bateratua

eman zuten 200dik gora alkatek zein udal hautetsik eta euskalgintzako ordezkari Bilbon, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean egindako agerraldian.

Ildo berean, EAeko udal legearen dekretutik baliogabetutako artikulua gehienak atzera bota zituen Espainiako Auzitegi Gorenak, euskara lehenetsiz gero hizkuntzen koofizialtasuna urratzen dela ebatzita. Epaiak erantzun irmoa izan zuen kalean, eta UEMAK egindako deialdiari erantzunez, Euskal Herriko udaletxeen aurrean elkarteratzeak egin ziren milaka herritar epaiaren aurka agertuz.

Sententzia euskal gizartearen eta euskal erakundeen borondate demokratikoaren aurkako eraso zuzena dela, eta azken hamarkadetako kontsentsuarekin hausten duela eta autogobernua nabarmen kaltetzen duela salatu zuten.

Idurre Eskisabel Larrañaga Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusiak irakurri zuen adierazpen bateratua.



Mutrikuarrak epaiaren aurka agertzen, UEMAK egindako deialdian



## LEA-ARTIBAI

Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20

ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960  
Mug: 659 879 268

## ADIERAZPENA

Gaur, euskalgintzako ordezkariak zabala Araba, Bizkai eta Gipuzkoako alkate eta udal ordezkari ugarirekin bat eginda gatoz Espainiako Auzitegi Gorenaren azken sententziaren aurrean.

Hain zuzen, epaitegi honek, Vox alderdi ultra-eskuindarraren argudioak bere eginez, Udalen Legea garatzen duen dekretuaren hainbat atal baliogabetu dituelako. Sententziak herritarrek hautatutako udal gobernuei udalerrri bakoitzerako hizkuntza politika askatasunez garatzeko eskumena ukatzen dielako egun indarrean dagoen araudia jarraituz.

Euskal gizartearen eta euskal erakundeen gehiengo zabalaren borondate demokratikoaren aurkako eraso zuzena da, azken hamarkadetako kontsentsuarekin hausten duena eta gure auto-gobernua nabarmen kaltetzen duena. Epai honen ondorioz, udaletan ezingo da euskara lehenetsi, ezta gaztelarekin batera erabiltzen denean ere. Finean, administrazioan euskararen erabilera normalizatu nahi bada neurri zehatzak hartu behar dira euskara gaztelarearen parera iritsi dadin, hori du asmo indarrean dugun araudiak.

Egoera larria da. Euskara hizkuntza gutxitua da, mendeetako debeku eta jazarpen politiken ondorioz minorizatua. Euskalgintzatik, Europako Hizkuntzen Berdintasunerako Sarearekin batera, adierazi genuen euskara larrialdi egoeran dagoela eta azken ikerketek ere agerian utzi dute geldialdi eta atzeraldi baten arriskua. Bestalde, euskal erakundeak eta eragile politikoak ahalegin berezia egiten ari dira azken hilabeteotan, euskarak ofizialki lekua izan dezan Europar erakundeetan.

Hain zuzen, euskara minorizaziotik ateratzeko ekintza positiboak premiazkoren direnean biderkatu dira neurri hauen aurkako sententziak, euskararen normalizazioarekin bateragarriak ez direnak. Dela Lan Eskaintza Publikoak baliogabetuz, dela Eusko Legebiltzarrak adostasun zabalez onarturiko legeen aurka eginez, dagoeneko 30 inguru dira euskal erakundeen hizkuntza politika egiteko eskumena higatzen duten sententziak.

Guzti honen aurrean, batasunetik erantzun beharra dago. Neurririk hartu ezean, oztopoak ugarituko dira euskaraz bizi nahi dugunontzat. Hizkuntza eskubideak bizitzako alor guztietan gauza daitezkeenean soilik bihurtzen direlako egiazko eskubide, ezin gara erasoei aurre egitera mugatu, aurrera egiteko garaia da. Segurtasun juridikoa indartu behar dugu eta beharrezko lege-aldaketarekin batera, euskal gizartearen jokaera proaktiboa sustatu behar dugu ahalik eta adostasun handiena eta zabalarekin herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen erabilera normalizatzeko.

Euskara behar dugu eta euskarak behar gaitu. Euskara baita gure hizkuntza, euskaldun egiten gaituena. Horregatik, euskalgintzak eta udal ordezkariok bat eginik, euskararen erabilerak dago-kion lekua behar duela berresten dugu, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu gaurkoan. Bada garaia harago joateko, hizkuntza politiketan jauzi bat emateko. Pizkunde berri baten aroari bide emateko.

Bilbon, 2025eko uztailaren 24an



# Saturrararan: historia eta memoria

Saturrararan, udan hondartza ederrean eguzkia eta bainua hartzeko aukera ematen duen lekua da, baina zerbait gehiago ere bai. Saturraranen XX. mendean aldaketa asko egon ziren, ez gunea asko aldatu zelako, ez, gertaerak halaxe etorri zirelako baizik.



## HISTORIA

Mende hasieran, udatiarrentzako ostatuz osatutako gunea zen Saturrararan eta, 1921 urtean, Udako seminario bihurtu zituen eraikinak une hartan Gasteizko Gotzaina zen Leopoldo Eijo y Garayk. 1936ko udan hasi eta 1937ko uda ingurura arte gerran zebiltzan tropen kokaleku izan ziren etxeak. Loiola Batailoia lehenengo, errepublikarrak ondoren eta irailetik aurrera Frankoren tropak erabili zituzten Saturrarango eraikinak.

1937ko abenduan erabaki zuten Saturrarango eraikinak emakumeentzako kartzela izango zirela, eta 1938ko urtarriletik 1944ko udaberrira arte Euskal Herritik eta Espainiako txoko guztietatik ekarritako emakumeak eta umeak sartu zituzten barruan. Hotelak, gerora seminarioko mutilentzat ikasgela eta logela izandako lekuak pabiloi bihurtu zituzten. Seminarioko mutilentzat Zaindetxea izan zena, berriz, kartzelako zuzendariaren etxe bihurtu zuten. Barrenengoa Zelularra izan zen, kuarentenako gelak, bisita gelak eta lurraren azpian, errekarren parean, zigor gelak zituena. *Astigarraga* hotela, gero *San Pelaio* izena jarri ziotena, amak eta umeak egoteko pabiloia zen eta emakume zaharrentzako. Errekaren beste aldean *Gran Hotel Balneario*, gero Seminarioko etxe nagusia, *Nuestra Señora de las Mercedes*, 8 zenbakia zeraman pabiloia izan zen. Han egoten ziren emakume gazteak batez ere. Gela handietan, 200 edo 250 emakume gela bakoitzean, komun bat guztientzat eta arraska txiki bat iturriarekin. 45 zentimetroko espazioa bakoitzarentzat zutik, eserita edo etzanda egoteko. Hori ere une bakoitzean tokatzen zen bezala...

1938ko otsailean ekarri zuten Saturrarango kartzelara Josefa Garcia Segret, maistra galiziarra. Bere egunerokoan honela hasten du Saturraranen deskripzioa "*Vallecito risueño y encantador...*" Dena polita balitz bezala hasten da, baina barruan daraman mina berehala azaltzen du... baita bertako zaintzaileen jarrera ere, monja Mesedetakoen jarrera. Horrelako kontaktak irakurrita jakin dugu zigor gelak lurraren azpian zeudela, itsasoan marea igotzen zenean gelara ura sartzen zela, eta Dolores Valdes gerriraino ura zuela eduki zutela gelan zigortuta. Haren bizitzaren berri gehiago jakiteko, wikipediako orri honetan sartu: <https://labur.eus/Dolores>.

1600 emakume inguru (umeak ez dira inoiz inon kontatzen) egoten ziren une bakoitzean Saturrarango kartzelan, 200 edo 250 mutil seminarista egoteko prestatuta zegoen lekuan. Aurretik aipatu bezala 45 zentimetroko espazioa baino ez







Jose M<sup>a</sup> Altzibar etorbidea 1  
Tel. 943 60 31 54 - alazne.optika@gmail.com

ALAZNE OPTIKA

zure negozioaren berri  
mutrikuar guztiei emateko

**KALAPUTXI**

[aldizkaria@kalaputxi.eus](mailto:aldizkaria@kalaputxi.eus)



Emakume presoak Saturrarano hondartzaren aurrean, tartean Sagrario Merodio.

zegoen emakume bakoitzarentzat. Saturrarango kartzelatik orotara zenbat emakume pasa ziren ez dakigu, baina 4000 emakume preso inguru izan ziren. 1939ko padroian jasotako datuen arabera, 187 emakume preso Euskadikoak ziren, horien artean zegoen Brigida Saldias, andoaindarra. Begiratutako fitxen arabera Saturrarango kartzelara ekarritako lehenengo emakumea. Baita Larrabetzuko bi ahizpa ere, Antonia eta Lorenza Apraiz Uriarte. Matxinbentako Maria Oiartzabal, Elgoibarko Gerónima eta Maria Alberdi Arrieta, Aiako Bernardina Ansola Soroa, Galdakaoko Julia Aranburu Larizgoitia, Eubako Frantziska Arregi Atutxa, Areetako bi ahizpa Dominga eta Florita Bilbao Mota, Izarrako Kandida Epelde Angoitia.... horrela jarraitzen du zerrenda luzeak. Saturrarango kartzelan egondako beste euskalduna da Bienvenida Agirrezabalaga Esnaola, 22 urteko tolosarra. Zerrendan ez da azaltzen 1938ko abuztuaren 28an hil zelako tifusak jota. Tolosan atxilotu zuten, burua kazkamoztu eta UHP (Union de Hermanos Proletarios) letrak pintatu zizkionten, gerra garaian beste askori egiten zioten bezala. Isabel Rios presa galziarrak kontatzen du Bienvenida oso neska alai zela, baina gaixotu egin zela. Isabelek enfermeriara joan eta bisitatzeko baimena eskatu zuen eta eman egin zioten. Bienvenida sukarr handia zeukan eta sifoi eskatu zien. Presoen artean dirua bildu eta Teodoro errekadistari eskatu zioten sifoi ekartzeko... Ordea, sifoi kartzelara iritsi baino lehen Bienvenida hil egin zen. Asto zuriak tiratzen zuen gurdian eraman zuten neska gaztearen gorpua Mutrikuko kanposantura, lehenago eta beranduago beste hainbat emakumeren gorpuk eraman zituzten bezala.

## MEMORIA

Historia txikiak, historia tristeak, historia gogorak... Denborekin galtzen doazenak... Preso egondakoen etxeak etortzen dira, ilobak, bilobak... eta interesa dutenak... Beren senideak non egon ziren jakin nahi dute, euren senidea non dagoen hilobiratuta jakin nahi dute, eta hutsarekin egiten dute topo... Hutsune handia Saturraranen... «Baina hemen non egon ziren?» Galdetzen dute. Ba hementxe hutsune honetan lehen eraikinak zeuden, harri oroigarria dagoen lekuan emakumeak beren umeekin egoten ziren, Nestor Basterretxearen eskultura dagoen lekuan enfermeria, eta Saturraranen hildako 177 emakume eta umeen izenak jasotzen dituen plaka dagoen lekuan 8. pabiloia zegoen.

Eta hildakoen hezurak non daude? Inon ere ez. Hilerrian legezko denbora lurpean egin ondoren, lurperatutako gainerrako herritarrekin batera atera zituzten Saturrarango kartzelan hildako presoak eta umeak ere eta herritarrak bezalaxe erre eta desegin egin ziren euren hezurak eta hilerriko hezurtokian utzi.

Nola gorde ikusten ez dena? Saturraranen ingurunea eta historia bateratuta, horretarako behar diren ideiak aztertu eta gauzatzeko baliabideak jarrita. Kanposantuan hildakoak beren izen-abizenekin jasoko dituen oroigarria jarrita, hezurak non dauden jakin ez arren, euren izenak gogoratzeko lekua eginda. Izan ere, ez baita nahikoa Memoria Historikoaren gune izendatzea... Saturraranen gertatutakoa aurrerantzean bizirik mantentzeko bidea egin behar dugu. Urteroko oroimen eguna eta memoria gordetzeko ekintzekin jarraituta. Mutrikuarrok badaukagu zeregina hau guztia aurrera ateratzen eta gordetzen.



**ZELAIETA JATETXEA**

Olatz auzoa · Mutriku · 943604595

**zabalik asteburuetan  
eta jai egunetan**

# ...ZORIONAGURRAK...



## EKHI

Zorionak!  
Gure etxeko ganberruak  
6 urte handi!  
Ondo pasau eguna.  
Iera, osaba ixiko, aume  
eta atxona



## LUAR eta NEREA

Zorionak bioi irailaren  
24an eta 28an zuen  
urtebetetzeak dira ta.  
Besarkada haundi-haundi  
bat, etxeko danon partez!  
Muxuak zuentzat.



## MAREN

Zorionak gure neska  
motzari bere 13.  
urtebetetzian!  
Aitonak, amonak  
eta etxeko guztiok  
matxo haundi bana,  
haundixena Hodeik.



## PEIO

Zorionak abuztuan  
urte berri bat batu  
dezu ta! Etxeko danon  
partez muxu haundi  
bat, erraldoiena  
Alizek!



## DIANA

Zorionak!  
Jarraitu poza zabaltzen  
algaraka!



## NAIANE

Zorionak zuriiii  
Abuztuan 3 urte ya! Ze  
haundi...!  
Zorionak danon partez  
bereziki Adei, Aner,  
Danel, Ibai, Enaitz eta  
Eber. Aupa txapelduna ta  
segi orrela! Muxuak




## ANER

Zorionak irailaren  
25ian 14urte!!  
Mila zorion etxeko  
guztion partez.  
Bereziki Danel, Adei,  
Naiane, Ibai, Enaitz ta  
Eberren partez.  
Aupa txapeldun!



## NAIANE eta AUGUSTO

Zorionak bikote abuztuan zuen urtebetetzia  
izan da ta! Zorionak etxeko guztion partez,  
bereziki Aner, Adei, Danel, Ibai, Enaitz ta Eber.  
Mila zorion zuentzat!



## ELENA

Zorionak tia Elenita!!  
Segi holako alaixa ta  
maitxagarria izaten  
beti!  
Asko maitxe zaitxugu!!!



## GURUZNE

Munduko amarik  
onenari zorionak bere  
urte betetzean. Matxo  
haundi bat.




## GURUZNE

Zorionak zure urte  
betetzean. Katxas-  
Getari familiako kideok  
egun eder bat igaro  
dezazula opa dizugu,  
eta jarraitu horrelaixe  
urte askuan.



## AIARA

Zorionak!  
Dauaneko 9 urte!  
Egun ederra ospatu.  
Asko maitxe zaitxugu!



## GARI

Urtebetetze eguna  
dezu irailak bi  
aurten anai txikia  
heldu da opari  
ondo ospatu gendun  
alai ta jostari  
etxeko danon partez  
Zorionak Gari!!!



## MAIALEN

Urriaren 5ean 6 urte  
bete dituzu, maitxia!  
Sei kandela, sei desio,  
eta sei aldz gehiago  
irribarre egiteko!

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza 3-4, behea

31 postakutxa

20820 DEBA

Tel. eta faxa: 943 192 249

Mob. 629 639 685

629 641 940

sagarmina@sagarmina.com

www.sagarmina.com

# Orgazki Zaharrak



1953. urte inguruan Atxukalen, «Estanko» aurrean.  
Koldo Flores Urreizti «Goixerri» eta  
Joxu Arrizabalaga Solupe.



**Lecube Cenecorta familia, etxeke atarian, 1951 urtean**

Goian: Mari Cruz, Rosario, Alfonso, Jesus Mari. Tartean: Mari Tere, Jose Luis, Jose Manuel.

Behean: Miguel Mari, Regina Ama, Maria Regina, Miguel Aita eta Eduardo.



ANSORREGI  
oinetakoak

erdiko kalea 9  
mutriku  
943 60 33 42  
agerretxo@gmail.com



Joseba Iñaki Eleizgarai  
**masajista eta osteopatia**

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

## IRAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
<b>22</b> Lasuen Ele	<b>23</b> Lasuen Ele	<b>24</b> Lasuen Ele	<b>25</b> Lasuen Ele	<b>26</b> Lon Apraiz	<b>27</b> Lon Apraiz	<b>28</b> Lon Apraiz
<b>29</b> Burgoa	<b>27</b> Burgoa					

## URRIA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

		<b>1</b> Burgoa	<b>2</b> Burgoa	<b>3</b> Zalduegi	<b>4</b> Zalduegi (1)	<b>5</b> Zalduegi
<b>6</b> Lon Apraiz	<b>7</b> Lon Apraiz	<b>8</b> Lon Apraiz	<b>9</b> Lon Apraiz	<b>10</b> Lasuen Ele	<b>11</b> Lasuen Ele	<b>12</b> Lasuen Ele
<b>13</b> Zalduegi	<b>14</b> Zalduegi	<b>15</b> Zalduegi	<b>16</b> Zalduegi	<b>17</b> Burgoa	<b>18</b> Burgoa (2)	<b>19</b> Burgoa
<b>20</b> Lasuen Ele	<b>21</b> Lasuen Ele	<b>22</b> Lasuen Ele	<b>23</b> Lasuen Ele	<b>24</b> Lon Apraiz	<b>25</b> Lon Apraiz	<b>26</b> Lon Apraiz

### EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA

09:00 - 22:00

Larunbat goizetan 09:30-13:00

Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392

Lon Apraiz.....630 055 097

Hiart Burgoa (Deba) .....667 338 890

Amaia Zalduegi (Deba)... 669 262 201

### GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA

22:00 - 09:00

Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30

Isasi 31, 20600 Eibar

## IRAILA

27	Mijoan	17:00	Txupinazoa, jolasak, erromeria eta DJ
28	Mijoan	12:30	Herri-kirol lehia eta auzo-bazkaria
30	Mijoan	12:00	SAN JERONIMO eguna: Meza eta herri-kirolak

## URRIA

7	Luardo	10:30	Lotune: Biodantza
	Luardo	18:00	Lotune: Gizonen foroa
7	Zabiel	18:00	TrebaGurasoak: Komunikazioa familian
14	Luardo	10:30	Lotune: Biodantza
20	20tik 30era		Oroimen astea (Saturraran Memoria Elkarte)
21	Luardo	10:30	Lotune: Biodantza
24	Zabiel	19:00	«JO!» antzerkia
26	Herrian	08:00	Mendizale Helduen XXXIX. Ibilaldia

### BISITA GIDATUAK

- Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·
- Nautilus, Flyscheko fosilak · Arrietakua jauregia ·

Turismo bulegoan edo [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) helbidean

## ODOLA EMATEA 2025

### urriak 20

· urriak 17 · abenduak 19 ·

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

 Gipuzkoako Odol Emaileak

**aldizkaria@kalaputxi.eus**  
**whatsapp 635748393**  
**urriko aldizkarian**  
**argitaratzeko**  
**urriarenren 10erako**  
**bidali zuen mezuak**

## MENDI-IRTEERAK 2025

### Urriak 19

Arrankudiaga – Goikogane – Ganekogorta – Alonsotegi (Aurrera)

### Urriak 26

Euskal Mendizale Federazioko XLIII. eta Gipuzkoako

Mendizale Federazioko XXXIX. Mendizale Helduentzako Ibilaldia

(Burumendi MT)

### Azaroak 16

Samiño – Izazpi – Mandubia (Burdinkurutz MT)

### Abenduak 14

Mutrikun. Urteko azken txangoa (Burumendi MT)



# IBARPLAS

## leihoaren erreferentzia



# VITORIAOPTIKA

O P T I K A - A U D I F O N O A K

AUDIOPROTESISTA  
EGUNERO ZENTROAN  
AUDIOMETRIA DOAN

AUDIFONOAK BERRITZEKO  
GURE PROMOZIOEI  
BURUZ GALDETU

IPARRETIK ERRIBERARA

**30 URTE GUZTIRA!**  
*Eskerrik Asko!*



ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA (BIZKAIA)

☎ 94 613 41 38 ✉ optikavitoriaondarroa@gmail.com

Udal Euskaltegiak  
Publikoak, irekiak, guztiontzat

## EUSKARA

ERRITMO BIZIAN



VIVE EL RITMO DEL EUSKERA



**MATRIKULA  
EPEA ZABALIK**

PLAZO DE MATRICULACIÓN  
ABERTO

2025-2026



## MATRIKULA ZABALIK

Matrikulaldia: Iraila

## IKASTAROAK

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.

Autoikaskuntza Internet bidez.

Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.

Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

Azterketa prestatzeko ikastaroak: HABEren titulu ofizialak,  
Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat.

Langabetu, jubilatu, ikasle eta gurasoek **MATRIKULA ERDIA**.  
Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat. (Baldintzak betez gero).

Informa zaitez Udal Euskaltegian!

## MATRIKULA ORDUTEGIA

MUTRIKU: 11:00 - 18:00

**DEBABE UDAL EUSKALTEGIA**

MUTRIKU: Sabanika aldapa, 4 - 943 603 094

# MUTRIKUKO HAURRESKOLA

izena ematea:

urriaren 1etik 10era, azaroan hasteko

Zuen zain izango gara!



*Haurreskola txikia,*

*familia handia*

Hirigibel, 3

943 60 41 19

[mutriku.mutriku@haurreskolak.eus](mailto:mutriku.mutriku@haurreskolak.eus)

[www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus)

HAURRESKOLAK

